

KLIK



Plazaolako bide berdea 360 graduan egin daiteke etxetik

Iruñeko eta Lakuako gobernuen akordio bati esker, Plazaolako bide berdeaz etxetik 360 graduan gozatzeko aukera izanen da, Sarasatik Andoainera. Sortu duten espazio interaktiboak, gainera, tren zaharraren eta inguruaren historia, paisaia eta arkitektura ezagutzeko erakusketa ugari hartzen ditu barnean. Google Street View eta Google Arts and Culture plataformetan, 68 kilometroko trenbidean ibiltzen ahal da, 82.000 argazki esferiko baino gehiagoz osatutako bisitan.

Argazkia: Nafarroako Gobernua

